

**PRENTSA OHARRA
NOTA DE PRENSA****PIRINIO ATLANTIKOEK, PIRINIO GARAIEK ETA EUSKADIKO
ETA NAFARROAKO AUTONOMIA ERKIDEGOEK LANDA
EREMUKO ZAINKETEN MUGAZ GAINDIKO PROIEKTUA
SUSTATU DUTE**

- **Transis Lab proiektua Europako funtsekin finantzatu da eta Gizalab Fundazioak garatu du**
- **Lurralde bakoitzean sei esperientzia pilotu jarriko dira abian, koordinazio soziosanitarioa hobetzeko eta adineko pertsonak beren komunitateekin konektatzeko**
- **Ahultasun-egoeran dauden 400 adineko sartzen ditu**

Vitoria-Gasteiz, 2024/02/29

Pirinio Atlantikoeak eta Pirinio Garaiek, mugaren beste aldean, eta Euskadiko eta Nafarroako autonomia erkidegoek bat egin dute landa eremuko zainketak hobetzeko proiektu bat abiarazteko. Mugaz gaindiko lankidetza hori Interreg Poctefa Europako programak babesten du, eta Gizalab Fundazioak garatzen du. Helburu nagusia arreta- eta zaintza-eredu berritzaile bat sortzea da, landa-eremuetako adinekoen beharrei modu eraginkor eta iraunkorrean erantzungo diena, ingurune espezifiko horretara egokitutako zerbitzu eta teknologien garapena sustatz.

TRANSIS LAB proiektua, mugaz gaindiko living lab bat da, bizitza luzeko gizarte berrikuntza landa eremuetan (erabilera partekatuko esperimentazio-laborategia), aliantza honen giltzarria da. 1,9 milioi euroko finantzazioarekin eta mugaz gaindiko 12 bazkideren partaidetzarekin, modu integralean heltzen die adineko pertsonek landa inguruneetan dituzten premia bereziei.

Hitzaldian, Javier Castro proiektuaren koordinatzaileak nabarmendu du “mugaz gaindiko lankidetza eta ikuspegi komunitarioaren garrantzia funsezkoak dira landa-eremuetako zainketa-ekimenen arrakastarako”, eta adierazi du “gure komunitateetan adineko pertsonen benetako beharrei erantzuten dieten konponbide berritzaileetara bideak irekitzen dituztela”. “Ikuspegi honen bidez, laguntza-sare publikoak eta komunitarioak aktibatzen dituzten zainketa-dinamika berritzaileak sortu nahi dira, horrela, gizarte-sarea indartuz eta adinekoen bizi-kalitatea hobetuz”, esan du.

Hurbileko gizarte- eta osasun-zerbitzuen beharrari ekiteaz gain, ekimen horrek aurre egin behar dio profesionalen eskasiaren erronkari, arlo hauetan:

medikuntza eta erizaintza komunitarioa, eten teknologikoak, gizarte-isolamendua, oztopo geografikoak eta zainketen feminizazioa.

Erronka horiei erantzuteko, Transis Lab proiektuak sei esperientzia pilotu ezarriko ditu parte hartzen duen lurralte bakoitzean (hiru EAEko lurralte historikoetan, bat Nafarroan, bat Pirinio Atlantikoetan eta beste bat Pirinio Garaietan), erantzun unibertsalak eta adinekoen beharretara egokituak eskaintzeko diseinatuak.

“Ekimen horiek hiru fase kritikotan egituratzen dira: ahulezia-profilak identifikatzea, esku-hartze plan pertsonalizatuak garatzea eta esku-hartzeen eraginkortasuna neurtzeko eragin-ebaluazioa”, azaldu du Javier Castrok. Ildo horretatik, Castrok adierazi duenez, “ikuspegi integralaren bidez, koordinazio soziosanitarioa hobetu nahi da, adineko pertsonak beren komunitateekin konektatu nahi dira, eta beren beharretara eta errealtitateetara hobeto egokitutako tresna publikoak diseinatu nahi dira, ikuspegi komunitario, prebentibo, parte-hartziale, hurbil eta pertsonalizatuarekin”.

Hala, Transis Lab proiektua konponbide berritzairelai eta itxaropentsu gisa sortu da, landa-eremuko zainketen egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko, eta ahulezia-egoeran dauden 400 adineko zuzenean inplikatzen ditu.

Azkenik, koordinatzaileak azaldu duenez, “Euskadi, Nafarroa, Pirinio Atlantikoak eta Goi Pirinioak aliantzak eta mugaz gaindiko gainerako bazkideek adinekoen bizitza hobetzeko konpromisoa erakusten dute”, eta “Transis Lab bezalako proiektuekin, berrikuntza sozialerako eta nazioarteko lankidetzarako bide berri bat irekitzen da, eta aurrekari baliotsua ezartzen da landa-eremuetako zainketen etorkizunerako eta belaunaldi nagusien ongizaterako”.



PIRINEOS ATLÁNTICOS, ALTOS PIRINEOS Y LAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS DE EUSKADI Y NAVARRA IMPULSAN UN PROYECTO TRANSFRONTERIZO DE CUIDADOS EN EL ÁMBITO RURAL

- **El proyecto Transis Lab está financiado con fondos europeos y desarrollado por la Fundación Gizalab**
- **Se pondrán en marcha seis experiencias piloto en cada territorio, diseñadas para mejorar la coordinación sociosanitaria y conectar a las personas mayores con sus comunidades**
- **Involucra a 400 personas mayores en situación de fragilidad**

Vitoria-Gasteiz, 29/02/2024

Pirineos Atlánticos y Altos Pirineos, al otro lado de la muga, y las comunidades autónomas de Euskadi y Navarra se han unido para lanzar un proyecto destinado a mejorar los cuidados en el ámbito rural. Esta colaboración transfronteriza está apoyada por el programa europeo Interreg Poctefa y desarrollada por la Fundación Gizalab. Su objetivo principal es crear un modelo innovador de atención y cuidado que responda de manera efectiva y sostenible a las necesidades de las personas mayores en las zonas rurales, fomentando el desarrollo de servicios y tecnologías adaptadas a este entorno específico.

El Proyecto Transis LAB, un living lab (laboratorio de experimentación de uso compartido) transfronterizo de Innovación Social en Longevidad, destaca como la piedra angular de esta alianza. Con una financiación de 1,9 millones de euros y la participación de 12 socios transfronterizos, aborda de manera integral las necesidades específicas de las personas mayores en entornos rurales.

En su intervención, el coordinador del proyecto Javier Castro, ha destacado "la importancia de la colaboración transfronteriza y el enfoque comunitario como pilares fundamentales para el éxito de las iniciativas de cuidado en áreas rurales", señalando que "abren caminos hacia soluciones innovadoras que responden a las necesidades reales de las personas mayores en nuestras comunidades". "Este enfoque busca generar dinámicas de cuidados novedosas que activen redes de apoyo públicas y comunitarias, fortaleciendo así el tejido social y mejorando la calidad de vida de las personas mayores", ha dicho.

La iniciativa, además de abordar la necesidad de servicios sociosanitarios de proximidad, también enfrenta el desafío de la escasez de profesionales en el ámbito de la medicina y enfermería comunitaria, las brechas tecnológicas, el aislamiento social, las barreras geográficas y la feminización de los cuidados.

En respuesta a estos retos, el proyecto Transis Lab implementará seis experiencias piloto en cada territorio participante (tres en los territorios históricos

de la CAE, una en Navarra, una en Pirineos Atlánticos y una en Altos Pirineos), diseñadas para ofrecer respuestas universales y adaptadas a las diversas necesidades de las personas mayores.

“Estas iniciativas se estructuran en tres fases críticas: la identificación de perfiles de fragilidad, el desarrollo de planes de intervención personalizados y la evaluación de impacto para medir la efectividad de las intervenciones”, ha explicado Javier Castro. En este sentido, Castro ha señalado que “el enfoque integral pretende mejorar la coordinación sociosanitaria y conectar a las personas mayores con sus comunidades, y diseñar instrumentos públicos más adaptados a sus necesidades y realidades, con un enfoque comunitario, preventivo, participativo, próximo y personalizado”.

Así, el proyecto Transis Lab emerge como una solución innovadora y esperanzadora para los desafíos actuales y futuros de los cuidados en el ámbito rural, involucrando directamente a 400 personas mayores en situación de fragilidad.

Finalmente, tal y como ha explicado el coordinador, “la alianza Euskadi, Navarra, Pirineos Atlánticos y Altos Pirineos y el resto de socios transfronterizos, demuestra el compromiso compartido por mejorar la vida de las personas mayores”, señalando que “con proyectos como Transis Lab, se abre un nuevo camino hacia la innovación social y la cooperación internacional, estableciendo un precedente valioso para el futuro de los cuidados en zonas rurales y el bienestar de las generaciones mayores”.

